

## 92/15 PRENTSA OHARRA

### 15KM + 5,5 KM-KO OINEZKO LASTERKETA DBUS-EKO AUTOBUS LINEEN GELTOKIEN LEKUALDAKETAK

2015eko urriaren 18an, igandean, egingo den 15 Km + 5,5Km-ko Oinezko Lasterketa dela-eta, Dbus autobus linea batzuetan aldaketak egongo dira 9:30etik 12:15era gutxi gorabehera. Horregatik, **ondorengo autobus zerbitzuak dohainik izango dira:**

- 9:30etik 11:00etara: 8, 9, 13, 14, 17, 29, 31, 33, 36, 37 eta 42 lineak.

- 9:30etik 12:00etara: 16, 19, 23 eta 32 lineak.

Hurrengo lineetan aldaketak egongo dira:

#### ➤ 5 LINEA - B.BERRI eta 25 LINEA- B.BERRI-AÑORGA

- **Antiguarantz:** Bukaerako geltokiak Okendo kalean egongo dira. Boulevarreko, Londres hoteleko eta La Perlako geltokiak kendu egingo dira eta Okendo kalera eraman. Han bukaerako geldialdia egingo dute.

Zumalakarregiko eta Tolosa hiribideko geltokiak Matia kalera eramango dira.

- **Erdialderantz:** Tolosa hiribideko, Zumalakarregi hiribideko eta Ondarretako geltokiak kendu egingo dira eta R.M. Azkue kalera eta Zarautz hiribidera (Hesperia Hotela) eramango dira.

San Martin kaleko 57eko, Artzain Oneko eta Boulevarreko geltokiak Okendora kalera eramango dira.

Errotaburutik Antiguara joan nahi duten erabiltzaileek Errotaburu-Antigua lantzagailu zerbitzuak hartuko dituzte.

#### ➤ 18 LINEA - APAIZGAITEGIA

- **Antiguarantz:** Zubietako eta La Perlako geltokiak kendu eta Urbieta kaleko 6ra eramango dira.

- **Erdialderantz:** San Martin 57ko, Artzain Oneko eta Gipuzkoa plazako geltokiak kendu eta Okendo kalera eramango dira.

#### ➤ 16 LINEA- IGELDO

**9:30etik 12:00etara.**

**16 lineak ez du zerbitzurik emango Gipuzkoa plazaren eta Ondarreta aldearen artean.**

Gipuzkoa plaza, Okendo eta Pio Barojatik (Sanserreka, zerbitzurik gabe) mugitu nahi duten erabiltzaileek Antiguarantz doazen ohiko zerbitzuak har ditzakete (L5 eta L25), horiek denak

Amaratik eta saihesbidetik ibiliko direlako Matia kalera heltzeko. Toki horretatik aurrera bidaiariek Satrustegi hiribideraino joan daitezke oinez, eta Jose Maria Satrustegiko geltokian (Ezeiza) lotura zerbitzua hartu.

**IGELDO**ko zerbitzuak: Jose Maria Satrustegi kaleko geltokitik (Ezeiza) Igeldoko auzoa Antiguako auzoarekin lotzeko zerbitzuak egongo dira.

### ➤ 17 LINEA – GROS- AMARA

Amararantz: Anoetako geltokira iritsi ondoren, Zorroaga pasealeku, Toribio Alzaga, Irun plaza, Felipe IV eta Eustasio Amilibia kaletik joango dira. Bukaerako geltokia Pio XII parkeko behin-behineko geltokia izango da (ohiko ibilbidea egingo dute Madrid hiribide 3an irteera jaso ondoren).

**Madrid hiribidea 17 eta 3 geltokiak zerbitzurik gabe geldituko dira.**

### ➤ 8 LINEA – GROS-INTXAURRONDO

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz:** bukaerako geltokia Jai Alai-n egingo du (Zubiaurre pasealekuan jiratu eta Jai Alaira egingo du). **Honako geltoki hauek kenduko dira: Ategorrieta, Galtzada Nagusia eta Kolon pasealekua.**

- **Intxaurrondorantz:** Jai Alaitik Fernando Sasiainera igoko da, Kotxetegietan buelta eman eta berriro ohiko bidearekin jarraituko du Zubiaurre pasealekuan. Boulevarreko eta Askatasunaren hiribideko geltokiak kendu eta Jai Alaira eramango dira. **Iparragirre kaleko, Zurriolako, Anbulategiko, Nafarroa hiribideko eta Arbos Musikariaren kaleko geltokiak kendu egingo dira.**

### ➤ 9 LINEA – EGIA-INTXAURRONDO

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz:** Tabakaleran buelta emango du.

- **Intxaurrondorantz,** Tabakaleratik aurrera ohiko ibilbidearekin jarraituko du.

**Honako geltoki hauek kenduko dira: Mandaseko Dukea (noranzko bietan), Euskadi plaza, Boulevarra eta Askatasunaren hiribidea.**

### ➤ 29 LINEA – INTXAURRONDO HEGOA

9:30etik 11:15era.

- **Erdialderantz,** bukaerako geltokia Jai Alain egongo da (Zubiaurre pasealekutik Jai Alai aldera egingo du, eta han bukaerako geldialdia egin).

- **Intxaurrondorantz,** Jai Alaitik aurrera ohiko ibilbidearekin jarraituko du.

**Honako geltoki hauek kenduko dira: Galtzada Nagusia, Zurriola, Boulevarra, Askatasunaren hiribidea, Pinudi plaza eta Baskonia plaza.**

➤ **13 LINEA - ALTZA eta 14 LINEA - BIDEBIETA**

**9:30etik 11:15era.**

- **Erdialderantz**, Ategorrieta hiribidetik eta Jai Alatik joango da, eta han bukaerako geldialdia egingo du.

- **Altza eta Bidebietarantz**, Jai Alaiako tunelean buelta eman eta Zubiaurretik eta Sasiaindik Kotxetegietara, han buelta emateko, eta Ategorrietako Erlojura heltzeko. Hortik aurrera ohiko ibilbidearekin jarraituko du.

**Honako geltoki hauek kenduko dira: Nafarroa hiribidea, Galtzara Nagusia, Kolon pasealekua, Zurriola, Boulevarra, Askatasunaren hiribidea, Pinudi plaza eta Baskonia plaza.**

➤ **19 LINEA - AIETE**

- **Erdialderantz**, bukaerako geltokia Marianistetan edukiko du, Easo kaleraino jaitsi gabe. **Honako geltoki hauek kenduko dira: San Martin eta San Bartolome.**

➤ **23 LINEA -ERRONDO ETA 32 LINEA - PUIO-ERRONDO**

- **Bera-Bera aldean ez da zerbitzurik egongo 23 linearekin.** Joan-etorri guztiak 32 linearen ibilbidean egingo dira, honako ibilbide honekin:

Marianistetatik Aiete pasealekutik La Cumberraino; Lazkano pasealekutik Amarrantz doan bidea hartuko dute Catalina Eleizegi eta Puiotik gora egiteko, San Juan de Dioseraino heltzeko. Han, buelta eman eta Errondoko Gaietik itzuliko dira, Borroto, Etxadi eta Aiete pasealekutik, Aldapetatik behera egiteko Marianistetaraino (azken geltokia).

**Erdialderantz honako geltoki hauek kenduko dira: Errondo pasealekua, Collado, Mendeurrenaren plaza, Antso Jakituna, Easo eta San Bartolome.**

➤ **21 LINEA -MUTUALITATEAK-ANOETA**

**9:30etik 12:30era.**

Mutualitateen aldetik zirkulatu ezin izango denez, **linea horren zerbitzua kendu egingo da.** Alde horretatik mugitu nahi diren erabiltzaileek **Amara aldera doazen ohiko lineen zerbitzuak erabili ahal izango dituzte (L26 eta L28).**

➤ **26 LINEA - AMARA-ERRIBERAK-MARTUTENE**

- **Martutenerantz:** Boulevarreko geltokia kendu eta Okendo kalera eramango da.

- **Erdialderantz:** Honako geltoki hauek kenduko dira: Madrid hiribidea 7, Antso Jakituna 11, Easo plaza, San Martin 25 eta Boulevarra. Honako hauek egingo dira: Mundaiz zubia, Gernikako Arbola pasealekua eta Maria Kristina zubia (Pio XII-ko parkean behin-behineko geltoki bat jarriko da).

➤ **28 LINEA - AMARA –OSPITALEAK**

- **Ospitaleetarantz:** Boulevarreko geltokia kendu eta Okendo kalera eramango da.

- **Erdialderantz:** 8:00etatik aurrera honako geltoki hauek kenduko dira: Madrid hiribidea 19, Madrid hiribidea 7, Antso Jakituna, Easo plaza, San Martin 25 eta Boulevarra. Honako hauek egingo dira: Mundaiz zubia, Gernikako Arbola pasealekua eta Maria Kristina zubia (Pio XII-ko parkean behin-behineko geltoki bat jarriko da).

➤ **24 LINEA - ALTZA-GROS-ANTIGUA-INTXAURRONDO**

- **Antiguarantz:** Ategorrietatik hasi eta Galtzada Nagusiko 27an, Kolon pasealekuko 17an, Iparreko Geltokian, Bilbao plazan eta Mendurrenako plazan egingo ditu geldialdiak. **Honako geltoki hauek kenduko dira: Nafarroa hiribidea eta Zumalakarregi.**

- **Larratxorantz:** Zarautz hiribidetik aterako da (Hesperia hotela). **Honako geltoki hauek kenduko dira: Collado, Zumalakarregi eta Tolosa hiribidea.**

➤ **27 LINEA - ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUA-GROS**

- **Antiguarantz:** Pio XII.a kalean hasi eta saihezbidea hartu eta Antiguarantz joko du, Lugaritzetik gora egin eta, Pio Barojatik jaisterakoan, Matia, R.M. Azkue eta Zarautz hiribideraino jarraituko du, azken horretan, Hesperia hotelean hain zuzen, bukaerako geldialdia egiteko.

- **Larratxorantz:** Zarautz hiribidetik aterako da (Hesperia hotela). **Honako geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregi hiribidea, Tolosa hiribidea eta Collado.**

➤ **31 LINEA - INTXAURRONDO-AIETE-OSPITALEAK**

- **Zubiaurre-Ospitaleetarantz:** Zurriolako, Boulevarreko eta San Bartolome kaleko geltokiak kendu egingo dira eta Askatasunaren hiribideko 18an geldituko da (33 linea).

- **Ospitaleak-Zubiaurrerantz:** Easoko geltokia Askatasunaren hiribideko 3ra pasatuko da.

➤ **33 LINEA - GROS-ANTIGUA-IGARA**

- **Antiguarantz:** Londres hoteleko eta La Perlako geltokiak kendu eta Urbieta kaleko 6ra pasatuko dira. Zumalakarregiko eta Tolosa hiribideko geltokiak kenduko dira. Berio eta Igarara joateko, Amerika eta Ibaeta plazetatik.

- **Larratxorantz:** Zumalakarregiko eta Tolosa hiribideko geltokiak kendu, Ondarretarantz. San Martin 57ko eta Easoko geltokiak Askatasunaren hiribideko 3ra pasatuko dira.

➤ **35 LINEA - ANTIGUA-AIETE-OSPITALEAK**

- **Ospitaleetatik Antiguarantz:** Pio Barojatik jaisterakoan Matia kalean sartuko da (kale honetan gelditu egingo da); gero, Resurreccion Maria Azkue kalera joango da (geltokia). Arriolara joateko, Amerika eta Ibaeta plazetatik. Honako geltoki hauek kenduko dira: Zumalakarregi, Tolosa hiribidea eta Julianategiko geltokia.

- **Ospitaleetarantz:** Honako geltoki hauek kenduko dira: Elhuyar plaza, Tolosa hiribidea, Zumalakarregi hiribidea (Ondarretarantz).

➤ **36 LINEA - SAN ROKE-ALDAKONEA**

Linea bitan bereiziko da.

San Roke aldea, Autonomia kaletik Matia kalera bitan bereiziko da.

**Honako geltoki hauek kenduko dira: Urbieta eta Autonomia.**

Aldakonea aldea: **Honako geltoki hauek kenduko dira: Euskadi plaza, Easo plaza, San Martin eta Askatasunaren hiribidea 21.** Askatasunaren hiribideko 3an egingo du geldialdia.

➤ **37 LINEA - RODIL-ZORROAGA**

- **Zorroaga alderantz:** Nafarroa hiribidean hasi eta Kolon 17an, Askatasunaren hiribideko 6an eta Gipuzkoa plazan geldituko da. **Honako geltoki hauek kenduko dira: Mariaren Bihotza eta Zurriola.**

- **Rodil alderantz:** Antso Jakitun kalean hasi eta Mundaiz zubian, Gernikako Arbolan eta Maria Kristina zubian egingo ditu geldialdiak. Askatasunaren hiribideko 21eko geltokia kendu egingo da eta Askatasunaren Hiribidea 3ra eramango da.

➤ **42 LINEA - ALDAPA-EGIA**

- **Erdialderantz,** Zubiaurre pasealekutik abiatuta Jai Alaitik igoko da Karmengo Ama eta Egia kaleetatik jaisteko Mandaseko Dukea kaleraino eta bukaerako geldialdia Epaitegietan egiteko. **Honako geltoki hauek kenduko dira: Ategorrieta 31, Galtzara Nagusia, Kursaal eta Boulevard.**

-**Aldapa alderantz,** Epaitegietatik ohiko ibilbidea egingo du.

**Honako geltoki hauek kenduko dira: Boulevard eta Askatasunaren hiribidea 15.**

**Lasterketak aurrera egin ahala lineak ohiko ibilbideak egiten hasiko dira poliki-poliki.**

Informazio gehiagorako, deitu 943 000 200 telefonora, edo [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) webgunean.